

2016ko OTSAILAREN 1eko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA

Herriko Kontseilua, 2016ko otsailaren 1ean, astelehenarekin, 20:00etan, Vincent BRU Jaunaren lehendakaritzapean bildu da herriko etxean.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint-Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othaceguy Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Roger Barbier Jauna, Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Hor ez zirenak edo jakinarazi zutenak: Maryannick Hirigoyen Anderea, Camille Jenvrin Jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Maryannick Hirigoyen Andereak Eliane Noblia Andereari, Camille Jenvrin Jaunak Bernadette Jougleux Andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Aho batez bertan ziren kideek, Argitxu Hirigoyen Anderea izendatu dute saioko idazkari.

2 – Azken saioaren bilkura agiriaren onartzea.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei galdegiten die oharrak badituztenez 2015eko abenduaren 21ean gertatu den saioaren bilkura agiriari buruz. Nehork oharririk egin ez duenez, azken saioaren bilkura agiria aho batez onartua da.

3 –2016ko aurrekontu norabideak.

Devèze Jaunak, finantzez arduratzen den axuantak, zehazten du 2015eko agorrileko NOTRe legeak lurralde kolektibitateetako kode orokorreko L.2312-1 artikulua aldatu duela eta orain dio salbuespenez, usaiako eztabaida sortuko duen aurrekontu norabideei buruz aurkeztuko duen txostenak, bozka baten bidezko delibero berezi baten ondorioz onartua izanen dela.

Devèze Jaunak ondoren diru mailako datuen azterketa bat egiten du bai ibilmolde arloan (bereziki 012 kapitulua: langile kargak eta antzekoak, zenbatekoak, ratioak, kopuruak) eta bai inbestizamendu arloan, eta hau finantza aldi bat baino gehiagotan. Ondotik, burutzekoak direnak sartuz, bururatze emaitzak ateratzen ditu eta behin eta berriz aipatzen du kolektibitateak duen jokatzeko leku eskasa. Zerbitzu gehigarri adierazgarrienen azterketa analitiko bat burutu ondoren (Arnaga, mediateka, igerilekua, L.S.H.Z., Turismo bulegoa), hiriaren finantza egoera, urteko inbestizamendu eta haren zorraren egoeraren arabera egokienak diren ratioak ateratzen ditu.

Auzapez Jaunak oharrarazten du egonaldi zergako sartzeak apaldu direla 2015ean eta galdegiten du zerbitzuak adi egon daitezen zerga horren biltzeko orduan.

Aiçaguerre Andereak gehitzen du sasoilari gisa alokatzen zuten pertsona batzuk urte osorako alokatzen dutela behar bada.

Auzapez Jaunak ondotik, batzorde bilkuretan eta agiantzeen ekitaldiaren karietara jadanik aipatuak izan ziren 2016rako aurreikusi inbestizamenduak aurkezten ditu:

- Hiri bihotzaren antolaketa (3. zatia) Elizako plazan: 720 000 € ZG (ordainsariak barne)
- Paisaia antolaketak Arnagan: 274 000 €, hauen % 80 Estatuak (DRAC/EKGZ), Eskualdeak eta Departamenduak emanik
- Zuhaitzen segurtatzea Arnagan: 16 523 € 2016an, 26400 € 2017an, 2018an eta 2019an, hauen % 80 Estatuak (DRAC/EKGZ), Eskualdeak eta Departamenduak emanik
- Veber margolanen berritzea: 153 000 € finantzamenduak lortuz gero,
- 8. Art., argietrai publikoa, France Télécom, sareen lurperatzea: 150 000 €
- Korrallean aldaketa haurtzaindegian (gainerakoa): 10 000 €
- Herriko eraikinen hobetze energetikoa: 108 000 €
- Arnagako argitze plana: 108 000 €
- Kanpin-karren eremua antolatzeko lur zatien erostea: 370 000 € (481 000 € kostako duten antolaketa obrak 2017an aurreikusiak)
- Agorespace eta skatepark: 100 000 € (partaidetza funtsa emana bada)
- Bideetako obrak: 300 000 € 2016an, 300 000 € 2017an, 400 000 € 2018 eta 2019an
- Euri uren sareak: 80 000 €
- Sorhainde plazaren antolaketa: 85 000 €
- Eraikin obrak: 100 000 € 2016an, 110 000 € 2017an, 100 000 € 2018 eta 2019an
- Material erosketa: 110 000 € 2016an, 100 000 € 2017, 2018 eta 2019an
- Obrak konpainian
- Ad'AP: 70 000 € 2016an, 70 000 € 2017an, 170 000 € 2018 eta 2019an.

Auzapez jaunak oroitarazten du, hastapenean 2016an aurreikusia zen teniseko jokalekuaren estaltzea gibelatua dela, tenis taldearekin adostu ondoren.

Auzapez jaunak zehazten du eztabaida bat plantan ezarria dela Errobi Herri elkargoarekin herriei partaidetza fondo bat emana izan zatzai, horrek orekatuko baitluke urtean Kanborentzat 200 000 €-koa den Estatuaren horniduren apaltzea. Herriak partaidetza funts hauek lortzen baldin baditu 2016an, horren ondorioa litzateke aurreikusi obrak edo urte bukaeran edo 2017an burutuko daitezkeela. Ikerketa bulego bat hautatu du Herri elkargoak dispositibo hau aztertu eta proposamenak egiteko. Bada beraz behar bada kanpin-karren eremurako lur zatien erosketa finantzatzen ahalbidetuko lukeen diru zama bat Errobi Herri elkargoarengandik lortzeko parada, eta, horrela, eremu horren obrak 2016an berean burutzeko, horrek diru sartze gehigarriak sortuz, eta kanpin-karren aparkatze arazo hori betirako konpontzeko.

Devèze Jaunak fiskalitatea berriz aipatzen du eta seinalatzen du joan den urtean tasak ez direla aldatuak izan. Oinarriak ez dira molde adierazgarrian garatu. Tasak % 1-ez garatuz, 18 000 €-ko sarrera berria lortuko daiteke. Baina oharrarazten du herriak diru lagntzak eskatzen dituelarik, gauzatzen duen zerga indarra galdegina zaiola ere.

Auzapez Jaunak galdegiten du galderarik badenez.

Michelena Jaunak galdegiten du herriak, 18 000 € edo 20 000 € baizik ekarriko ez liokeen %1-eko tasen emendatzeari pentsatzea baino, ez duenez gogoetatu xahutzeen apaltze bati buruz.

Izan ere, hainbat erreportaietan auzapez anitz entzuten da Estatuaren horniduren apaltzeaz pleñitzen eta xahutzeak apaltzen entseetzen direnak, halanola argietrai mailan adibidez. Pentsatzen du Kanbon, beste leku batzuetan bezala posible dela usaiako xahutzeak 18 000 € edo 20 000 €-z apaltzea.

Auzapez Jaunak zehazten du Kanboko herria jadanik sartu dela ibilmolde xahutzeen apaltze baten bidean eta ez duela, zenbait herritan bezala, langile berririk kontratatu. Alimaleko indarra galdegiten die herriko langileei, beharrak goitituz doazelako. Herri, departamendu eta eskualde askok langileak kontratatu dituzte eta gaur egun egoera zailan daude. Cour des Comptes erakundeak kolektibitateak berdin egitera gomiatu ditu. Kanboko herriari dagokionez, Auzapez jaunak gai honi buruz elkarrizketaturik prentsari egin adierazpen baten kari egin bezala, soldataren zatia atxikia izan da. Energia aurrezteei dagokienez, jadanik burutua izan da argiteria publikoko bi lanparetatik bat itzaliz 23 :00etatik goiti eta energia anitz xurgatzen duten materialak progresiboki aldatuz. Zerbitzuetako zuzendari orokorrak, Christian Devèze eta Auzapezaren agindupean, ibilmolde xahutzeen justifikazioa egiaztatzeko ardura du diru publiko oro enpoildu gabe ongi erabilia izan dadin. Christian Devèzek seinlatu duenez, langile eta zorraren karguek dute pisu handiena aurrekontuan. Inbestizamenduei dagokienez, herri askok apalarazten ditu, sartzetaz murrizketa batzuei eta zorpetze egoera zailei aurre egin behar dietelako. Ez da hala gertatzen kanboko herriarentzat, ez baitu mementoko haren inbestizamendu bolumena apalarazi nahi beharrak baitira besteak beste burutu beharreko bide eta antolaketa arloetan.

Xahutzeen apalaraztea aipatzean, Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du hautetsien ordainsariak apalaraz daitezkeela Kotte Ecenarrok 2014an izendatu ondoren eta berriz ere 2015ean, egin bezala. « Untsa litzateke ereduak erakustea ere ».

Auzapez jaunak erantzuten dio ez dela aurreikusia eta NOTRe legeak ez duela gehiago eskatzen hautetsien ordainsarien buruzko erabaki bat kargualdi hastapenean hartzea. Herri ttipientzako, bertako hautetsiek ordainsariak hartzera ausartzen ez zirenean, legeak adierazten du ez dela deliberorik izanen salbu auzapezak nahi baldin badu. Horrek balio du orain beste herrientzako. NOTRe legearen arabera, hautetsien ordainsariak justifikatzen ditu zerbitzu publikoari eskaini denborak. Mantenduak dira hainbat herritan. Aldiz, behatzen du eskualdeetako kontseilarien ordainsariak emendatuak izan direla lurraldea handitua izan delako eta geruzak garrantzitsuagoak direlako.

Bacardatz Jaunak, inbestizamendu lanen mailan galdegiten du aurreikusia denez obrak burutzea Arnaga villan 2016 urterako.

Auzapez jaunak erantzuten du Arnaga villari dagokionez, herriko eraikinen mantenu obra eta materiala erosketan sartzetaz diren tindatze eta segurtasun obrak direla bakarrik aurreikusiak.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du, nazional mailako segurtasun arduradun bat pasatu ondoren, hainbat antolamendu programatuak izan direla ontasun eta pertsonen segurtasunaren alde villan.

Auzapez jaunak gehitzen du noiztenkako esku hartze batzuk eginak izanen direla zalditegien mailan, donostia 2016rekin loturan eta abisatzen du Labat Andereak eskaera bat luzatu duela fatxada bat tindatzeko, baina hau ez da 2016an burutua izanen.

Solas hauek osatzeko, Auzapez Jaunak gehitzen du 2015eko agorrilaren 7ko NOTRe legeak zehazten duela delibero batek baieztatu behar duela aurrekontu norabideei buruzko eztabaida ongi burutua izan dela eta, beste aldetik, lege horrek urte anitzeko planoak zehaztea eskatzen du. Herriak hauetako guti dauka, aurten bukatzen den « Hiri bihotza » operazioaz aparte. Arnagako zehazten

segurtatzea bezalako batzuk badaude, horretarako herriak 26 000 € sartzten baititu urtean, eta 2019 urtea arte aurreikusia da, bai eta Ad'Apena herriko eraikinetarako helgarritasuna finantza aldi desberdinetan hedatua izanki (70 000 € 2016 eta 2017an, 180 000 € inguru ondoko hiru urteetarako).

Auzapez jaunak herriko kontseiluari galdegiten dio delibero baten bitartez kontuan hartzea aurrekontu norabideei buruzko eztabaida eramana izan dela, Christian Devèze, herriko kutzazaina eta zerbitzuetako zuzendari orokorra burutu lanerako eskertu ondoren.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du posible denez Christian Devèzek aurkeztu dokumentuak eskuratzea eta erraiten du damugarri dela aitzinetik ez ditzaten ukan lantzeko gisan.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du ere Auzapez jaunak inbestizamenduei buruz aurkeztu dokumentua ukaitea.

Auzapez Jaunak erantzuten dio inbestizamenduetarako, nahiago duela laguntzen fondoei buruzko Herri Elkargoko bilkura igurikatzea.

Onartua. Abstenitzen dira: Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna.

4 – Tokiko Hirigintza Planoa: Antolaketa eta Garapen Iraunkor Planari buruzko eztabaida (PADD/AGIP).

Auzapez Jaunak seinalatzen du, hitza hirigintza axuanta den Frédéric Bardini pasatu aitzin, Herriko kontseilua AGIP-i buruzko eztabaida burutzeraz gomitatua dela baina ez diola eztabaida horrek bozkatzeko aukerarik eskaintzen.

Frédéric Bardin Jaunak oroitarazten du, 2014ko uztailaren 21eko delibero baten bitartez, Herriko kontseiluak THP-ren berrikuste orokorreko prozedura abian ezarri duela, kargu txostena onartu duela kontsulta bat abian ezartzeko kolektibitatea prozedura horretan laguntzea enkargatua den ikerketa bulego bat izendatzeko.

2014ko azaroaren 3ko delibero baten bitartez, Herriko kontseiluak Axe et Site et Eten Environnement taldea izendatu du herria THP-ren berrikuste orokorreko prozeduran laguntzeko gisan.

Antolaketa eta Garapen Iraunkor Planak (AGIP) hirigintza egitasmoa edo herri osoko antolaketaren norabideak zehazten ditu.

Hirigintza kodeak HTP-ri garapen iraunkor arloan esleigarri zaizkion helburuak adierazten ditu. Horrela, AGIP-ek herri guzira atxiki etxebizitzetara, garrarioei eta joan-etorriei, komunikazio numerikoei, aisialdi eta ekonomia eta merkataritza garapenari dagozkien norabide orokorrak gelditzen ditu. Espazio kontsumoa ttipitzea eta hiriaren hedapenaren aurkako borrokaren helburuak finkatzen ditu ere.

Herriko kontseilari bakoitzak, INSEEk helarazi informazioen arabera herritarren mailan gaurkotu dokumentua eskuratu du, mezuel bitartez.

Herriko kontseilurako deiarri lotu dokumentuari ekarri aldaketak Kanbo herriaren mailako herritarrak hunkitzen ditu. Gaur egun, biztanleria 6 827 herritarrekoa da (2013ko biztanle kontaketa oinarri gisa erabilia izanki 2016ko urtarrilaren 1etik goiti) hauen artean herritarren kopurua: 6 672 herritar eta aparte kontatu biztanleria: 155 herritar.

Herriko biztanleria osatzen dute haien usaiako egoitza herrian etxebizitza batean edo komunitate batean duten pertsonak, herriko presondegietan giltzaperatuak diren pertsonak, herriko eremuan kontatuak diren aterperik gabeko pertsonak eta herriko eremuan kontatutako etxebizitza mugikor batean usaian bizi diren pertsonak.

Aparte kontatu biztanleria osatzen dute usaiako egoitza beste herri batean baina egoitza bat herriko eremuan atxiki duten pertsonak:

- familiako egoitza beste herri batean baina, ikasketak bertan bururatzeagatik herrian bizi diren adingabekoak;
- beste herri bateko komunitate batean egon eta herriko eremuan familiako egoitza bat duten pertsonak;
- ondoko zerrenda osatzen duen komunitateak:
 - osagarri erakunde publiko edo pribatuak egonaldi ertain edo luzeko zerbitzuek, zahar etxeak, sozial etxe eta egoitzak;
 - erlisione komunitateak;
 - kaserna edo militar eraikinek;
- familiako egoitza herriko eremuan eta haien ikasketak bertan bururatzeagatik beste herri batean bizi diren 25 urte baino guttiagoko pertsona adindunek;
- 1969ko urtarrilaren 3ko legearen arabera herriari lotu eta herrian kontatuak ez diren aterpe finkorik gabeko pertsonak.

Komunitateetan kontatu pertsonen kopurua 1 105ekoa da, horrek ekartzen duelarik etxeen arabera 5 567 (6 672 – 1 105) biztanle.

Biztanleria osoa osatzen du herriko biztanleria eta aparte kontatu biztanleriaren batuketak, erran nahi baita $6\ 672 + 155 = 6\ 827$ biztanle.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du eskuen artean duen INSEE-ko dokumentuan ez direla zenbaki berdinak agertzen. Biztanleria osoa 6 827koa da, baina ez du ulertzen zergatik Bardin Jaunak 1 000 pertsona kentzen dituen.

Bardin Jaunak erantzuten dio eskuen artean duen dokumentuan komunitateetako jendeen kontaketa 1 105ekoa dela agerian uzten duen orrialdea eskas daitekeela.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du nolaz izan daitekeen 1 105 pertsona komunitateetan Kanbon. Haren aburuz, zenbakia okerra da. Axe Sitek bere lanaren fruitua aurkeztu duelarik, 1 000 pertsona inguru kontatzen zituela hauetarik 250 eta 300 artean zahar etxeetan eta hiru hilabete baino gehiago ospitaleratu pertsona. Hori egia zitakeen 2012an, baina okerra gaur egun, pertsonak ez baitute hiru hilabete baino gehiago ospitaleraturik iragaiten.

Bardin Jaunak oharrarazten du 2013ko zenbakiak dituela azaltzen. Hiriart-Urruty Andereak zenbaki hauek zalantzan ezarri nahi baditu, aski du INSEE-rengana jotzea. Zenbaki hauek ez ditu berak asmatzen, erakunde ofiziala den INSEE-k hornitu xehetasunak dira. Biztanleen kontaketa 2017an abian ezarria izanen da, emaitza 2018 edo 2019an aurkeztua izanki. Baina urte guziz, INSEE-k urtarrilaren 1eko egoera bat emanen du, eta hau estimazioa besterik ez da izanen.

Hiriart-Urruty Andereak zalantzan ezartzen ditu eta seinatzen du horrek emaitza aldatzen duela, hirigintzako batzordeko azken bilkura arteko emaitzak 7 200 pertsonetan oinarritzen baitziren 2025 arte, azken dokumentuan 9 000 biztanle aipatzen direlarik.

Bardin Jaunak adierazten du, egia dela, AGIP-en aldatua izan den bigarren puntu bat dela, ikerketak 2010etik 2030erako garaian burutzen dituen LAE-rekin egokitzeko gisan.

Hiriart-Urruty Andereak ez du ulertzen zergatik 2030, azken egun hauek arte 2025 aipatzen baitzen.

Bardin Jaunak berriz seinatzen du LAE-k, orain, 2010etik 2030erako helburuak ematen dituela. Herria garai berdinetan oinarritzen da, eta horrek ekartzen du 7 300 biztanleko etxeetako biztanleria bati dagokion 9 000 biztanle inguruko herriko biztanleria.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du kasu horretan, aparte kontatutako 1 700 pertsona leudekeela. Haren iritziz, ez da posible.

Michelena Jaunak harridura handia erakusten du, dokumentua irakurtzean 1 000 pertsona baitira agertzen komunitateetan, ondotik 1 100 eta orain 1 700. Progresioa biziki azkarra dela iruditzen zaio.

Bardin Jaunak zehazten du 9 000 biztanleko jendetza hau, 2010etik 2030era eraiki 750 etxebizitzetatik datozela, erran nahi baita % 1,92ko emendatzea urtean. Xehetasunak galdeginen ditu aparte kontatu 1 700 pertsoneri buruz, zenbaki hau gehiegizkoa aurkitzen baitu, eta honen azalpenak ondoko bilkuran emanen ditu.

Michelena Jaunak, LAE-ri dagokionez, seinatzen du Herri Elkargoan, gomendatua dela 315 etxebizitza izan daitezen datozen 15 edo 20 urteetan. Banaketa biztanleriaren arabera egina da. Hastapeneko dokumentuko 75 etxebizitzak Kanboko biztanleriaren %25ari dagoz Okio Herri Elkargoan. Kanboko jendetza 9 000 biztanlera helduko denean ez da gehiago % 25 izanen baina bai % 30, eta ondotik eskatua izanen da % 30 etxebizitza berri eraikiak izan daitezen ondoko planoan, eta igoera bat izanen da.

Bardin Jaunak zehazten du 750 etxebizitzen emendaketa 1AU, 2AU et UC eremuan libre diren lurren azaleraren arabera kalkulatu dela.

Hiriart-Urruty Andereak seinatzen du herri guzietan haien HTP-aren berrikustea agindu dutela. Errobi Herri Elkargoaren baitan, koherentzia bat izan behar da. Gaur egun, LAE-aren arabera biztanleriak %1ez emendatu beharko luke 2010 eta 2025 artean. 750 etxebizitzekin 10 urtetan, hori anitzez gainditzen dugu. Herri elkargoko « hirigintza » batzordean egonik, erraiten du ez dela oraindik kontzertaziorik izan egitura horretan parte hartzen duten beste herriekin. Azken honek urtean 315 etxebizitza eraiki behar ditu 2025 arte. Kontzertaziorik izan ote da?

Auzapez Jaunak erantzuten du lehen kontzertazio bat izan dela Hiriart-Urruty Anderea egon den bilkura baten karietara, eta bertan galdegina izan zela helburuak finkatzea. Eskaini baimenen kopurua aztertua izan da eta hortik ateratzen da kopurua aldatzen zela urte batetik bestera. 2012an, emendatze oso arin bat gertatu da bi eraikin altxatuak izan baitira hiri barnean Assantzaren inguruan. Horregatik herri bakoitzari eskatua izan zaio haien AGIP-aren baitan deliberatzea aukera kanoretsuez. Bilkura bat antolatua izanen da aski fite LAE eta Frédéric Bardin buru den Herri elkargoko eta Estatuko zerbitzuekin, ikusteko herriko datuak bateragarri direnez Herri elkargokoenak eta LAE-renekoekin eta kalkulatzeko moldeak berdinak direnez.

Hiriart-Urruty Andereak dio zentzuzkoagoa dela kontzertazio hori burutzea, eta Kanbok hornitu behar duen etxebizitza kopurua ondotik ikustea.

Auzapez Jaunak erantzuten dio norabide bat, antolamendu eta garapen iraunkor plan bat dela. Aurreikusi emendatzea nabarmen burutua izan denaren petik da. Biztanleria berritzeko emendatze tasa barne da.

Bardin Jaunak zehazten du 750 etxebizitzetan, biztanle gehiagoren etorrera irudikatuko ez duten aurreikusi sasoiko alokairuzko etxebizitza % 40 izan daitezkeela.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du herriak sasoiko etxebizitzen % 40ra heldu nahi badu, « nun biziko dira jendeak? »

Bardin Jaunak erantzuten dio herria ez dela % 40 hauek heldu. Gaur egun egiten dena da, jende askok erosten du ondotik alokatzeko. Herriak ezin du deus egin horren saihesteko.

Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du 2012 edo 2013ko biztanle kontaketaz gero, sasoiko etxebizitzak barne hartzen dituzten % 20 bigarren etxebizitzak direla. Hemen % 40 aipatzen da, bi aldiz gehiago.

Auzapez Jaunak zehaztu nahi du herriak ez duela etxebizitzen % 40 erreserbatu, arrunt okerra da. Herriak ez du kuotarik ezarri nahi. Obralariak adierazten du azken urteetako eraikuntzetan, ohartu garela etxebizitzen % 30 eta 40 artekoa kuristen hartzeari eskainia dela. Bainuetxeak 15 000 kurista hartuko ditu eta aterpetu beharko dira. Horrek aberastasuna ekartzen dio herriari ere, eta lana sortzen ofizialei.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du kanbora datorren jende guzi horri etxebizitza atzeman behar zaiola. 750 etxebizitza burutzen baditugu, bi pertsona kontatuz etxebizitza bakoitzean, erran nahi du 1 500 pertsona gehiago izanen dela eta, 2025ean 8 100 pertsonara hel gaitzkeela. Nun biziko dira perstona horiek dagoenaren % 40 sasoilariei eskainia bazaie. Bistan dena herriko etxeak ezin ditu proiektu pribatuak galarazi. Haren aburuz, hautetsiek etxebizitzaren aldeko politika bat ukan behar lukete gazteei etxebizitza atzematzen laguntzeko gisan. Zer egin gogo du herriak?

Auzapez Jaunak erantzuten du lehenik, alokairuzko etxebizitza sozialari behar zaiola lehentasuna eman. Gaur egun, 2AU edo 1AU guneetan badira etxebizitzak eta hau U guneetara zabaldu beharko da. Apartemendu andana bat UC gunean eraikia izanen den puntutik, galdegina izanen da laurdena alokairuzko etxebizitzarako izan dadin. Horrek etxebizitzei bertan bizitzeko asmoari jarraitzea ahalbidetuko luke. Neurri hau gaur egun ez dagoen datorren THP-an izanen da. Hemendik 2020ra, Auzapez jaunak herriko lotizamendu ttipi bat sortzea nahi du lurra prezio interesgarrietan erostea eta lehen aldiko etxea erosten dutenek erostea ahalbidetzeko jadanik egina izan den bezala. Bada ibilbide bat bizitegi politika mailan haien etxebizitzaren jabe izan aitzin hastapenean alokatzen duten pertsonentzat.

Michelena Jaunak galdegiten du zoin den etxebizitza sozialen gaur egungo tasa Kanbon. Irakurri du % 5,54koa zela, beraz herriak beranta handia duela berriz harrapatzeko. THP-an aurreikusi beharreko etxebizitza sozialen kopurua zenbakitua zehaztu behar daiteke, eta THP-a gauzatzerakoan lortu beharreko tasa bat zehaztua izan dadin.

Auzapez Jaunak erantzuten dio horregatik zuela Frédéric Bardinek iradoki alde batetik alokairuzko etxebizitza sozial horiek ez daitezen bakarrik 1AU guneetan emanak izan, baina beste

gune batzuetan ere. Beste aldetik, herria ez da SRU legearen menpe ez eta ALUR legegari ere ez baititu distantzia baldintzak betetzen ACBA-ren arabera.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du emandako dokumentuan, 15etik 20ra doan hektareako etxebizitza dentsitatea dela aipagai. Gaur egun, 31 ha 42 daude U gunean, 20 ha 79 1AU-n eta 13 ha 91 2 AU-n. 750 etxebizitza horiek eraikitzen baldin badira 10 urtez hektareako 15 etxebizitza dentsitatearekin, 50 hektarea kontsumiturik da, erran nahi baita lurren erreserba guzua kasik. Gogoetatu beharko da ondoko belaunaldiei utzia izanen zaionari buruz, lur funtsa zaindu eta, LAE-n adierazi bezala laborantzako lurak.

Bardin Jaunak oharrarazten du gaur egun dagoenean, zaharberritzeak burutuko direla.

Auzapez Jauna arrunt ados da erraiteko laborantzako lur sailkatuak zaindu behar direla. SRU legeak eta gehien bat ALUR legeak zentro urbanoak ahal bezain bat dentsifikatu nahi dituzte. Herriak hainbat bortxa ditu: kasik milako bat biztanle zahar etxeetan, pausa etxeetan eta osagarri etxeetan. Kanbo ur hiria da eta etxebizitzak beharrezkoak dira jarduera horretarako. Azkenik, AVAP-i buruzko ikerketa bat abian ezarria da THP-arekin batera, eta herriak hirigintza aurrekontuaren baitan, parkeak eta lorategiak zaindu nahi ditu. Kanbok ezaugarri bat du, ur hiri bat izatearena zuhaitz, parke eta lorategiekin, eta arkitektura aberastasun bat, eta irudi hori da gure ondokoei ondoriotasunez utzi. Kanbo biziki zaharraren balioztatze bat burutua izan da « Hiri bihotza » operazioarekin.

Bardin Jaunak zehazten du 2010etik 2014ra, hektareakako etxebizitza kopurua 14 eta 17 artekoa zela.

Hiriart-Urruty Andereak erraiten du: « haren taldearen lehen arregura pertsonei aterpe duin eta plantakoa eskaintzeko ahala ukaitea da bai eta lur funtsa zaintzea artifizializatua den puntutik ez baita gehiago izanen. Jendeari etxebizitza bat nola eskainiko diogu, nola eginen ditugu gune ekonomikoak, nola mugituko gara horra gure buruari usu galdetzen dioguna, baina gutitan galdegiten diogu nola elikatuko garen. Gogoeta hau eraman behar dugu ere. Lurraren lehen helburua jendea elikatzea da. janaria ekarri beharko diogu biztanleria horri tokiko laborariekin partaidetzan zirkuitu laburrak eta laborantzako lurak lehenetsiz ».

Bardin Jaunak azpimarratu nahi du herriko etxeko gehiengoaren arregura eta helburua dela ere, jendea baldintza onetan aterpetzea eta lur funtsa zaintzea.

Auzapez Jaunak seinalatzen du THP-an, zati garrantzitsu bat laborantzari eskainia zaiola. Jendea hartzen duten guneen kontzentrazio azkarra badago (Kanbo Garaia, Behereko Kanbo, Haurtzain), baina mugatua dena herriaren azalera orokorraren arabera. Herriak ez ditu hogoi edo hogoiita hamar hektarea ireki nahi U edo 2AU gunean baina bai laborantzako guneak zaindu Behereko Kanbon, route des Cimes-en, Paskalekun eta Arnagara buruz, gaur egun egiten den gisara.

Bacardatz Jaunak adierazten du herriak ez dituela 2AU-n eta 1AU-n diren lur batzuk eraldatu nahi.

Bardin Jaunak erantzuten du ez dela hori errana izan. Ez da sortzerik izanen, aski lur baita jadanik UC, 1AU eta 2AU gunean lur guziaz kontsumitu gabe. Herriaren helburua laborantzako lurak ez kentzea da.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du: « 2AU lur batzuk laborantzako lurak bilakaraziko ote dituzue herri askok egiten duten bezala, eta gehien bat laborariak errazkiago ustia ditzaketen lur zelaiak? »

Auzapez Jaunak oroitarazten du gune eraikigarriak aski kontzentratuak direla Kanbon. Herriak ez du azalerarik irekitzeko asmorik N edo A guneetan hartuz.

Michelena Jaunak galderak baditu bizilekuari buruz baina ere bizilagunei buruz. Idatzia da 2030era, 2 000 pertsona gehiago izanen direla Kanbon. Zer bilakatuko da bizia Kanbon jadanik dauden zirkulazio eta aparkaleku arazoak ikusten ditugunean. Zer nolako bizi kalitatea izanen da hartuak izanen diren jendeentzat? Ibili eta aparkatzeko ahalik eskaintzen ez duen hiri batean kokatzeko bada, ez dira jendeak erakartzen ahalko eta ez die ere bertan egoiteko gogoia emanen.

Auzapez Jaunak oharrarazten du herriaren biztanleria, hamar urtetan, 2 000 bizilagunez emendatu dela, eta bizia hala ere biziki atsegina dela Kanbon. Nahi luke 2030ean ez dadin gehiago aparkatzeko, mugitzeko arazorik izan. Beste mugikortasun arazo batzuk izanen dira. Belaunaldi bakoitz, aukerak, sorkuntzak, egokitzeak badira. Zirkulazioa desberdina izanen da 2030ean gaurkoari konparatuz. Etorkizunean, hiriek egokitu beharko dute.

Bardin Jaunak gehitzen du egia dela, bizi perfilea aldatuko dela. Gogoeta bat abian ezarria izan da gune urdin bat plantan ezartzeko.

Michelena Jaunak azpimarratu nahi du pertsonak haien autoen beharra dutela lanera joateko. Garraio publikoak ez dira egokiak.

Saint Jean medikuak hitza hartzen du seinatzeko HELEP-arekin, aterabide bat atzemana izanen zaiela arazo hauetako batzuei. Biztanleria kostaldean bilduko da gero eta gehiago. HELEP berriak garraio molde berri hauei buruzko gogoeta bat eraman beharko du, eta garrantzi handikoa izanen da arlo horretan.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du ez dela dena HELEP-arengandik igurikatu behar eta AGIP-en txostenean deus ez dela « Garraioak eta Joan-etorriak » kapituluan. Aitzineko AGIP-ean joan-jile bat aipatzen zen eta ez da gehiago honetan agertzen. Galdegiten du zoin diren intramuros zirkulazioaren aldeko proiektuak, jendei mugitzeko eta auzotegi baztertuetatik etortzeko parada eskaintzeko gisan. Ez da hau HELEP-en ardura baina herriak du arazo honi buruzko gogoeta eraman behar.

Bardin Jaunak zehazten du AGIP-en norabide bat dela, eta hau hasten ahal dela gune urdin bat eta ondotik bizikleta bide plantan ezarriz. Gogoeta bat eramana izanen da garraio moldei buruz herriaren baitan baina ere herritik kanpo.

Hiriart-Urruty Andereak dio nahikeria pixka bat behar dela eta zerbait proposatu hamar urtetan.

Auzapez Jaunak ez du iritzi berdina partekatzen, hiriko eta hiri arteko garraioak herriena baino izari handiago batean tratatu beharko direlako. Pentsatzen du Euskal Herriko Hirigunearen mailan dela hiriko eta hiri arteko garraioen politika antolatu behar. Ez du herri bakoitzak garraio mota hori bere ardura pean ukanen 2025ean. Posible da gehitzea arunt balditua ez den AGIP-ean galdera hauek herriarena baino izari handiago batean aztertu beharko direla, erran nahi baita Euskal Herriko Hiriguneak egin beharko duela edo jadanik dauden herri elkargoei dagozkien lurralde erakundeak.

Gehitzen du Rousset Jaunari oroitarazi diola, Baiona eta Donibane Garaziren arteko linearen irekitze berriaren karietara, linea hau beharrei egokituagoa izateko asmoan errepidea arintzeko gisan. Hori egingarria da aparkatzeko kaiekin. Nahiko luke HELEP-ek eskualde berriarekin negoziata dezan plan horren lehenesteko.

Aiçaguerre Andereak seinalatzen du Bardin Jaunak gune urdina aipatzen duela, baina oharrarazten du 2014ko abenduko herriko aldizkarian, gune urdin hori 2015eko urtarrilaren 1etik goiti plantan ezarria izan behar zela eta, gaur egun, ez da batere plantan ezarria izan.

Bardin Jaunak oharrarazten dio obra horiek hiri barnean burutuak izanen direla eta nahiago izan dutela obren bukaera igurikatu gune urdina plantan ezartzeko.

Auzapez Jaunak galdegiten du beste oharririk badenez.

Beste oharririk ez baita, Auzapez Jaunak adierazten du AGIP-aren norabide orokorreari buruzko eztabaida eramana izan dela eta herriko hirigintzako zerbitzuak eskertzen ditu eta gehien bat Frédéric Bardin eztabaida hau prestatu eta eraman duelako.

Hiriart-Urruty Andereak hitza hartzen du Bardin Jaunari galdegiteko zoin segida emanen dion eztabaida horri.

Bardin Jaunak adierazten du hirigintza batzordean berriz aipatua izanen dela.

Auzapez Jaunak gehitzen du AGIP ez dela finkatua eta alda daitekeela. Lehenik lan bilkurak izanen dira eta ondotik batzordea bilduko da Kanboko datorren THP bozkatu aitzin.

5 – Lur zati eskualdatzea Darmaillacq Jaunaren partetik: inkesta publiko ondoko erabakia.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluari oroitarazten dio 2015eko azaroaren 9ko delibero baten bitartez erabakia izan dela ondoko lur zatiak euro sinbolikoaren truke erostea eta eremu publikoan sartzea:

- AL 153, 42 m²-koa Lurbinttoenborda bidean kokatua eta honen gainean datu hartze postu bat ezarria izanen da,
- AL 155, 156, 157, 158 Charles Palassie karrikako bidea osatzen duena eta 1 162 m²-ko azalera orokorreko AL 154 Pierre et Jules Fagalde karrikaren zabaltzeko.

Auzapez jaunak adierazten du inkesta publiko bat eginarazi diola 2015eko abenduaren 16tik 30era, 2015eko azaroaren 27ko agindu batek izendatu Xavier Hernandorena mandatari-inkestagileari. Neholako erreklamaziorik ez baita eginik izan, mandatari-inkestagileak aldeko iritzia eman dio proiektuari.

Herriko kontseiluak, Auzapez Jaunaren azalpena entzun ondoren eta molde zabalean deliberatu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DU Darmaillacq François Xavier Jaunarenak diren 1 204 m²-ko azalera orokorreko AL 153, 154, 155, 156, 157, 158 lur zatiak erostea eta eremu publikoan sartzea,

ARDURA EMATEN DIO Auzapez jaunari operazio honen burutzeko urraspide eta betebeharrak guztiak betetzeko eta akta dagokion molde administratiboan burutu ditzan, gastuak herriaren gain izanen direlarik.

6 –Juanchuto etorbidearen zabaltzea: lur zati erosketa eta lekualdaketa eremu publikoan.

Axuantza arduraduna den M. Frédéric Bardinek bilkurako kideei azaltzen die beharrezkoa dela partikular batzuek Juanchuto etorbidean herriari egiten dioten lur zati eskualdtzea erregularizatzea:

Zatia	Azalera	Jabeak
AX 62 p	12 m ²	BARDIN Frédéric eta Catherine Jaun-Andereak
AX 125p	4 m ²	SAINT JEAN Christian eta Evelyne Jaun-Andereak
AX 126p	5 m ² et 1 m ² (2 parcelles)	SAINT PE Jean-Louis eta Murielle Jaun-Andereak
A 128p	9 m ²	CEHABIAGUE Jeannine Anderea
AX 129p	10 m ²	NORMAND Bernard Jauna

Jabeak ados dira eremu publikoaren luzeran kokatuak diren lur zati hauek euro sinbolikoaren truke saltzeko. Jadanik bisoa dira.

Herriko kontseiluari ondokoei buruz iritzi bat ematera gomitatua da

- Gorago aipatu Juanchuto etorbidearen luzeran kokatuak diren lur zati horiek euro sinbolikoaren truke erostea,
- Dagokion inkesta publikoa abian ezartzea,
- Lur zatiak eremu publikora eskualdatzea.

Gastu guziak (akta administratiboa, geometroa...) herriaren gain geldituko dira.

Aho batez onartua. Bardin Jaunak ez du bozketan parte hartzen.

7 –Fleuristes karrika: lur zati baten erosketa eta lekualdaketa eremu publikoan.

Axuantza arduraduna den M. Frédéric Bardinek biltzarrari azaltzen dio François Michelena Jauna Fleuristes karrikako 7an kokatua den AX 80p2 lur zatia euro sinbolikoaren truke saltzeko prest dela. Lur zati hau jadanik bidearen zati osoa da eta komeni da egoera erregulaizatzea.

Inkesta publiko bat beharrezkoa da 8 m²-ko azalera duen lur zati hau eremu publikora eskualdatzeko.

Herriko Kontseilua ondoko puntuei buruz iritzia ematera gomitatua da

- Fleuristes karrikako 7an kokatua eta François Michelena jaunaren jabegoa den 8 m²-ko azalera AX 80p2 lur zatia erosteko printzipioa,
- Dagokion inkesta publikoa abian ezartzea.

Gastu guziak (akta administratiboa, geometroa...) herriaren gain geldituko dira.

Aho batez onartua. Bardin Jaunak ez du bozketan parte hartzen.

8 –Olhaberriague auzotegia: lur zati saltze eta eskualdatzea eta lekualdaketa eremu publikoan.

Axuantza arduraduna den M. Frédéric Bardinek biltzarrari azaltzen dio beharrezkoa dela egoera zahar bat erregularizatzea Olhaberriague auzotegian.

CHALDU Jean eta Geneviève Jaun-Andereek lurra utzi diote herriari Olhaberriague bidearen eragina aldatzeko gisan. Lur uzte hauek ez dira sekulan ofizializatuak izan. Gaur egun dauden jabeak ondoko lur zatiak eskualdatzearen alde dira:

Zatia	Azalera m ² -tan	Jabea	Nori utzia
A 1 521 p	735	CHALDU Jean eta Geneviève	Herria
A 1 960 p	224	CHALDU Jean Bernard	Herria
Eremu publikoa	125	Herria	CHALDU Jean eta Geneviève

CHALDU Jean eta Geneviève Jaun-Andereak ados dira A 1 521p lur zatiko 610 m² (735 m² - 125 m²) herriari uzteko euro sinboliko baten truke.

Bestalde, herriak Kurutxeta bidean kokatua den A 1 432 zatiaren parte bat (428 m²-ko azalera orokorra) saltzen du:

- 291 m² azalera Departamenduko kontseiluari erakunde publikoek estimatu prezioan, erran nahi baita 0.15 €/m²= 43.65 euro.
- 224 m²-ko azalerako Olhaberriague auzotegiko lur zatiaren truke CHALDU Jean-Bernard Jaunari.
- 1 913 m²-ko azalerako (2 137 – 224) CHALDU Jean Bernard Jaunari erakunde publikoek estimatu prezioan: euro 1 m² orohar 1 913 euro.

735 m²-ko azalerako 224 m²-ko azalerako A 1 521p eta 1 960p lur zatiak eremu publikora eskualdatzeko, inkesta publiko bat beharrezkoa da.

Herriko kontseiluari proposatua zaio

- 125 m²-ko azalerako A 1521 p lur zatiaren parte bat CHALDU Jean et Geneviève Jaun-Andereei erostea Olhaberriague bidean eremu publikoaren gainean kokatua den 125 m²-ko lur zati baten eskualdatzearen truke,
- Olhaberriague bidean kokatu consorts CHALDU Jean eta Geneviève-eren jabegoa den 610 m²-ko azalerako A 1521 p lur zatia euro sinbolikoaren truke erostea,
- Olhaberriague bidean kokatu CHALDU Jean-Bernard Jaunaren jabegoa den 224 m²-ko azalerako 1 960p lur zatia erostea azalera berdina duen Kurutxeta bidean kokatu A 1432p lur zatiaren parte baten truke,
- 1 913 m²-ko azalerako A 1432 p lur zatiaren gaineratikoa euro 1 m²-ka saltzea erran nahi baita 1 913 euro CHALDU Jean-Bernard Jaunari,
- Kurutxeta bidearen luzeran (RD 420) kokatu lur zatien 2 parte Departamenduko kontseiluari erakunde publikoek estimatu prezioan saltzea, erran nahi baita 0.15 euro x 291 m² orohar 43.65 euro,

Orohar A 1432 zatia, azalera orokorra: 2 428 m²

Trukaketa CHALDU Jean-Bernardekin	Eskualdatzea 1€/m ² -ka CHALDU Jean Bernardi	Eskualdatzea 0.15 €/m ² -ka Departamendu kontseiluari
224 m ²	1 913 m ²	291 m ²

- dagokion inkesta publikoa abian ezartzea,
- CHALDU Jean et Geneviève Jaun-Andereen jabegoa den 735 m²-ko azalerako A 1 521p, eta CHALDU Jean-Bernard Jaunaren jabegoa den 224 m² -ko azalerako A 1 960p lur zatiak eremu publikora eskualdatzea,
- A 1 432p (B et C) lur zatiak Departamenduko kontseilua eta CHALDU Jean-Bernard Jaunari (A) uztea.

Gastu guziak (geometroa, CHALDU aktak) herriaren gain geldituko dira. Lur zatiak Departamenduko kontseiluari uzteari dagokionez, geometro gastuak herriak bere gain hartuko ditu, akta gastuak Departamenduko kontseiluaren gain izanen dira.

Aho batez onartua.

9 – Eremu publikoaren erabilpena: araudia.

Axuantza arduraduna den Bernadette Jougleux Andereak, bertan izanki, bakoitzak eskuratu duen eremu publikoaren erabilpen araudi proiektua azaldu eta komentatzen du.

Aho batez, Herriko kontseiluak araudi hori onartzen du.

10 – A.G.A.H.: bi aitzinatze zerbitzuren sortzea.

Axuantza arduraduna den Henri Saint Jean Medikua adierazten du AGAH L.S.H.Z.tik herrira eskualdatua izan ondoren, 2016ko urtarrilaren 1etik goiti, Herriko kontseiluari galdegiten zaio iritzi bat eman dezan xahutze ttipi erlatiboan ordaintzeko bi aitzinatze zerbitzu sortzeari buruz,

1º) eskolaldi inguruko jardueretan (goizean klasea aitzin, arratsalde hastapenean, arratsean klasearen ondotik eta asteazken goiz eta arratsaldean),

2º) eskolaldi kanpoko jardueretan (oporren garaian).

Trésor-eko kutxazainak baimena eman du bi aitzinatze zerbitzu hauen sortzeko, mezuelen bidez 2016ko urtarrilaren 18an.

Aho batez onartua.

11 – Villa Arnaga: etxebizitza kontzesioa.

Auzapez jaunak adierazten du menekotasun bereziak kontutan hartzeko, kolektibitateek enplegu batzuei laneko bizitegia eskaintzen diela.

Langileak deipeko zerbitzu bat segurtatu behar duenean, deipeko etxebizitza okupazio prekario hitzarmen baten baitan emana da eta etxebizitzaren zinezko balioaren % 50 gutienez heinekoa den ordainsari baten truke.

Denbora osoko ondare begiratze arduradun enpleguarekin batera laneko etxebizitza bat eskainia da, deipeko zerbitzu iraunkor bat segurtatzeko gisan (presentzia fisikoa edo telefonoz helgarria) pertsona eta ontasunen segurtasuna zaintzeko, zerrendatze hau osoa izan gabe.

Eskaini etxebizitza Villa Aranagan , Dr Camino etorbidean kokatua da, eta lau gela nagusiz osatua da. Alokairua zerga zerbitzuek 2015 €-tan estimatu dute. Auzapezak ordainsaria balio horren % 107,19-tan finkatzea proposatzen du, erran nahi baita 180 € hilabetean.

Onuradunak, eskaini etxebizitzaren alokairuaren konponketa eta kargu guziak bere gain hartuko ditu.

Aiçaguerre Andereak agerrarazten du Herriko kontseiluak delibero bat hartu behar duela 2012ko 752 dekretuari buruz, hau 2015eko irailaren 1etik goiti aplikatua izan behar zuelarik. Adierazten du beste enplegu batzuek ere laneko etxebizitza lor dezaketela, hilerrikoa kasu, eta galdegiten du zergatik ez den deliberorik hartua izan. Laneko etxebizitza baten lortzeko eskubidea duten enpleguei buruzko deliberoa hartu beharko zen eta ondotik delibero bat hartu emana zaion etxebizitza zehaztuz. Idatzia da Villa Arnagako etxebizitza lau gelaz osatua dela baina argudio zehatzagoak behar dira, azalera...

Auzapez Jaunak oharrarazten du ontasun eta pertsonen segurtasunak ez dituela arrangura berdinak sortzen hilerrian eta Arnagan, leku honetan zinezko lanjerra baita. Monumentu Historiko gisa sailkatua den eraikina dugu hau, pertsona kopuru handi bati harrera eskaintzen duena. Hitza zerbitzuetako zuzendari nagusiari uzten dio.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehazten du egia dela, bi aukera bazeudela 2015eko irailaren 1ean aplikagarria zen 2012ko erreforma hau arte: edo etxebizitza urrik lortzea zekarren zerbitzu baten baitezpadako premia, edo alokairu bat ordainduz egin zerbitzu horren baliagarritasuna. Gaurko egunean, herria bi aukera hauen koadroan sartzen diren hiru etxebizitzaren jabe da. Zerbitzu baten baitezpadako premiak hilerria eta Arnagako atezaindegia hunkitzen ditu.

Aiçaguerre Andereak hitza hartzen du adierazteko deliberoak ikustera joan delarik herriko etxera, ohartu dela hilerriko etxebizitza ez dela gehiago Zerbitzu baten baitezpadako premia gisa 1997az geroz agertzen, onartua izan zen alokatzailearen eskaera baten ondorioz.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak adierazten du, egia dela, ez dela gehiago zerbitzu baten baitezpadako premiarik, deipeko etxebizitza okupazio prekario hitzarmen bat izenpetua izanen da jadanik villa Arnagako laneko etxebizitzaren kasuan bezala. Zehazten du Arnagako atezaindegiko etxebizitza zerbitzu baten baitezpadako premiaz eskainia dela (2015eko uztailaren 20ko deliberoa) atezainari esleituak zaizkion zereginak kontutan harturik. Erabakia 2015eko irailaren 1etik hartua izan behar zen, baina galera alokairu mailan ez da handia ; alokairua urte hastapenean berrikusia baita eta 2016ko otsailaren 1etik goiti hala izanen delako.

Aiçaguerre Andereak seinalatzen du alokairua merkatuko prezioaren zinezko prezioaren % 50 heinekoa izan behar dela okupazio prekario hitzarmenei dagokienez.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzuten dio alokairua alokatze balioaren arabera kalkulatu dela.

Aiçaguerre Andereak erraiten du ez dela etxebizitza zergaren gainean, baina bai merkatuaren zinezko balioaren %50, horregatik da dekretua 2012an atera aplikatze batekin, eta gero 2015ean kolektibitateek alokatzaileak abisa ahal zezaten eta azken hauei ordu arte pagatzen zutena baino alokairu askoz handiagoekin aurki ez daitezten.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak atxikitzen du erranez alokairua etxebizitzaren alokatze balioaren arabera finkatua izan behar dela. Alokairua, alokatze balioaren % 50 baino guttiagokoa baldin bada, bazterreko abantaila gisa hartua dela. Alokatzeko balioaren erdia baino gehiagokoa baldin bada, ez da egokitua izanen.

Aiçaguerre Andereak hitza hartzen du erraiteko Arnagako kontserbatzaile postu horretarako, bazterreko abantaila dela beraz eta horrela zela orain arte.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak ezetz erantzuten dio, alokairua % 50 baino handiagoa baita. Izan ere, alokatze balioa 2 015 €-koa da, 18 € inguruko alokairu batera heltzeko, eta proposatu alokairua 180 €-tan da. Gehitzen du kontserbatzaile berria lanean hasi denetik, erran nahi baita 2010ean, alokairuaren sei urteko emendatzea % 16koa dela, urtean % 2,69ko emendatzera heltzeko. Urte guziz emendatuak diren beste herriko apartamenduei dagokienez, emendatzea % 2,69 baino apalagoa da, inflazioaren tasan oinarritua baita.

Aiçaguerre Andereak seinalatzen du delibero bat hartua izan behar zuela etxebizitza mailan haren azalera eta beste ezaugarriei dagokienez. Gehitzen du: « untsa litzateke kanbon 150 m²-ko etxebizitzak ukaiten ahal bagenitu hilabeteen 180 € ordainuz, zenbateko hau gutiatsia da, eta legea ez da untsa aplikatua kasu horretan ».

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak oharrarazten du ez dela herriak alokatzaile bati onartu dion alokairu bat. Horren truke deipekoak badira.

Aiçaguerre Andereak, deliberoan agertu behar diren deipekoen zerrenda galdegiten du.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehazten du deliberoan agertzen direla.

Aiçaguerre Andereak erantzuten du « lausoa da: deipeko zerbitzu etengabea, presentzia fisikoa edo telefonoz beti atzematekoa. Zer erran nahi du horrek? » Deliberoa ez da aski zehatza.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak adierazten du deliberoa ez bada aski argia, legezkotasunaren ikuspuntutik, zalantza ezar daiteke. Zehazten du zerbitzu juridikoak segurtatu diola delibero hau arrunt zuzena dela. Onartzen du zehaztasunak galda daitezten deipekoei buruz, baina hala ere deliberoa azalera eta beste elementu batzuekin osa daiteke.

Aiçaguerre Andereak adierazten du alokatzaileak ere asurantzua bat hartu behar duela.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzuten du ez dela idatzia « alokatze arriskuak » asurantzua ordena publikoko arau bat delako. Alokatzeko bakoitzak urte guziz « alokatze arriskuak » asurantzua ziurtagiria hornitu behar du. Etxebizitzaren azalera agertuko da deliberoan.

Auzapez Jaunak oharrarazten du hilabeteen 180 €-ren truke 150 m²-ko apartamendu batean bizi nahi duten pertsonen buruz aitzinatu argudioa ez dela onargarria. Ez dira etxebizitza klasiko bat eta eraikin historiko batean bortxa azkarrekin, ondare kontserbatzaile baten etxebizitza konparatu behar.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aïçaguerre Andereak erraiten du: « delibero proiektu bat baldin bada, hala ere bozkatzen dugu? »

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio.

Gehiengoak onartua. Kontra bozkatzen dute: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Pantxo Michelena Jaunak.

12 – Ezohiko diru laguntza Garaiko Kanboko Besta Komiteari.

Pascale Lespade Andereak Herriko kontseiluari proposatzen dio ezohiko diru laguntza bat bozkatzea Garaiko Kanboko Besta Komiteari. Adierazten du herriko kontseilari bakoitzari zuzendu txostenean 1 580 €-ko diru laguntza bat baizik ez zela agertzen. Alta, SACEM-ek 563,10 €-ko 2014ko faktura helarazi berri du. Herriak, 2016ko urtarrilaren 14ko gutun baten bitartez, L'Arbre à Vache Konpainiak 2014ko herriko besten kariatara burutu emanaldi baterako 1 580 € ZGB-ko faktura bat ordaintzea eskatzeko Besta komiteari zuzendu gutunaren kopia eskuratu du. Oroitarazten du 5 000 €-ko ezohiko diru laguntza bozkatu zenean, erabakia izan zela herriak ordaindu gabeko 2014ko faktura guziak egiaztatuko zituela.

Herriko kontseiluari eskatzen zaio iritzia eman dezan orotara 2 143 €-ra heltzen diren Garaiko Kanboko Besta komiteari bi diru laguntzak onartzeko.

Devèze Jaunak oharrarazten du elkarte bakoitzari aurrekontuak eskatzen zaizkiola, baina etorkizunean, SACEM gisara ordaindu beharreko gastu guzi hauek aurrekontuetan ager daitezen eta erreserba bat aurreikusia izan dadin horrelako xahutzeei dagokienez.

Auzapez jaunak oharrarazten du herria 7 143 € ordaintzen ari zela 2014 urterako. Kideak, besta komiteak erakutsi eta positiboak ziren bilanak kontsultatzera gomitatzen ditu. Ez zen diruzaintzako arazorik, salbu 2010ean, 2009 urterako bertan 2012 urteko soberakin batek estali defizita bat bazen. Herriko Kontseiluak 2014ko ziloa betetzeko bozkatu behar du, 7143 € orotara, hauen 5 000 € jadanik onartuak izan direnean. Gaur egun, Herriko kontseiluari galdegina zaio SACEM-aren 2014ko 563 €-ko faktura gai ordenari gelitzea.

Aïçaguerre Andereak zehaztasun batzuk ekarri nahi ditu joan den azaroaren 9ko herriko kontseilu saioari dagokionez, bertan Auzapez Jaunak adierazi baitzuen besta komite berriak ez zuela dokumentu bat ere aurkitu, ez zela artxibo bat, bilan bat ez eta bankuko agiri bat ere. Jakinarazten dio ere Herriko kontseiluari besta komitean berreskuratu guzia ekarri duela, sailkagailu guziak, artxibo guziak 2008tik 2014ra. « *Txosten horiek ikertzen direlarik, ohartzen gara besta komiteko kideek nahi izan dutela antzerkia antolatu 2013an eta 2014an, eta horrek aurrekontuan adierazia zena baino pixka bat karioagoa gertatu dela. Gainera, urte horietan, dirua biltzeko etxe kurrida ez da batere egina izan. 2012an, 4 700 € bilduak izan ziren etxe kurrida hauen kariatara, 2015ean: 748 €, eta 2013 eta 2014an: 2 000 €* ».

Auzapez Jaunak oharrarazten du txeke batzuk ez direla kutxan sartuak izan.

Aïçaguerre Andereak erraiten du txekeak kutxan sartuak izan direla baina zehaztasun bat ekartzen ere, Irailan gertatu Pasalekuko méchouiko txekeak bankura otsailan baizik ez dira eramanak izan. Disfuntzio bat gertatu da komitearen mailan, gelditu den lehendakaria, berriz hasi den lehendakari ordea, gehiago Kanbon bizi ez zen diruzaina. Azpimarratu nahi du Auzapez Jaunak bere alaba besta komiteko diruzain gisa izendatu duela, eta hau egia da 2009tik 2012ra, urte hartan

zeregin hori utzi duelako. Idazkaritzat hautatua izan da bilkuran berean ez zegoenean ere, hau orain ez delarik gehiago nahitaezkoa elkartean.

Lespade Andereak hitza hartzen du adierazteko 2013 eta 2014ko fakturak galdegin dituela. 2012 arte, faktura guztiak komitearen lokalean ziren. Loriatua da gaur jakitea 2013 eta 2014ko fakturak berriz atzemanak izan direla, baina ez ziren lokalean.

Aïçaguerre Andereak erraiten du: « *Pampi Dibarek ditu 2013 eta 2014ko fakturak berreskuratu, eta Idoia Lamoureux lehendakari berria berarekin zen; dena komitean berreskuratua izan da* ».

Lespade Andereak seinalatzen du pasaleku bestetako txekeak ez direla sartuak izan, haren txekea ez zen ezta bankuan ezarria izan. 2013ko bankuko dokumentuak kontsultatzean, ohartzen gara ez dela neholako txekerik ezarria izan.

Aïçaguerre Andereak oharrarazten du 2013 hastapenean, txeke anitz pausatua izan dela.

Lespade Andereak gehitzen du komitearen mailan, Cécile Hiribarren ez zela behar bada gehiago diruzaina, bakuko agiriak 2015eko otsaila arte Nathalie Aïçaguerre etxean bizi zen Cécile Hiribarrenen izenean heldu ziren.

Aïçaguerre Andereak erantzuten dio haren alabak ez zuelako lortzen diruzain berriarekin bankura joatea zela horrela gertatzen. Bankuari jakinarazia zion baina honek beste informaziorik ez zuenez, adierazi zuen agiriak eskuen artean zuten helbidera igortzen segituko zutela. Lespade Andereak ezagutzen duen delako pertsona horri galdegiten ahal dio. Gehitzen du bere alabak hitzordu batzuk eman zizkiola sekulan etorri ez den pertsona horri.

Lespade Andereak erantzuten du ez dela posible izenik asmatzea paper batean beste zerbait agertzen denean.

Aïçaguerre Andereak seinalatzen du Prefeturako deklarazioak duela balioa. Komite berri bat izendatua izan zen eta Cécile Hiribarren ez zen gehiago diruzaina. 2012ko azaroaren 9tik goiti, haren diruzain funtzioak utzi zituen. Diruzain berri bat izendatua izan zen.

Auzapez Jaunak oharrarazten du ez duela bere taldeak eztabaida abiarazi saio horretan. Erantzunak ekarriak besterik ez dira izan egin galdera edo oharrei. Kontseilari guzietan publikoak diren dokumentu horiek kontsultatzeko gomita igortzen die, bai eta 2010etaik 2015era positiboak deklaratuak izan diren besta komiteen aitzineko urteetako kontu deklarazioak. Ez zaio herriari tokatzen Prefeturari eskatzea aldaketarik izan denez elkartean, elkarrengan fidatzen da, bai eta egin deklarazioei.

Lespade Andereak gehitzen du komiteko kideak biziki gazteak izanki, erne egon beharko da eta kontuak kudeatzen irakatsi beharko zaie. Kudeaketa arazo bat izan da eta « ez du besterik erran ». Gazte horiek segituko dituela adierazten du.

Auzapez Jaunak Pascale Lespade eskertzen du gazte horientzat egiten duenaz eta egiten segitzen duelako.

Aïçaguerre Anderea harriturik gelditu da bestetako bilanak aztertu dituelarik, besten antolatzeako kostuaz. 25 000 € inguruko xahutzeak badira, eta herriak 14 500 €-ko diru laguntza bat ekartzen du. Besta komiteari animazio eskasa leporatua zaio, baina gehiago antolatzen balitu, emaitza oraindik ezinago txarra lirateke.

Auzapez Jaunak oharrarazten du diru laguntzekin batera helarazi kontuak ez direla zuzenak.

Aiçaguerre Andereak ados dela adierazten du eta bere alabari erran ziola ez zela ongi, xapittoa alokatzeko 3 000 € ondoko urtean ordainduak ziren. Gazte horiek ez zekiten ere nola aurkeztu aurrekontuak. Orain Pascale Lespade horretaz arduratuko baita, pentsatzen du dena hobeki izanen dela eta dena ezin hobeki gertatuko dela.

Hiriart-Urruty Andereak gehitu nahi du: « *Mintzatzan entzuten zaituztedalarik, ikaragarria da lanean sartu nahi duten gazteentzat. Nor izanen da lehendakari, nor izanen da diruzain, nor izanen da idazkari? 25 000 € baino gehiago kostatzen duten besta horiekin 14 500 €-ko diru laguntzarekin, nola atzeman behar dute dirua? Bakar batzuk horiei ote da, hamar bat dira, dirua atzematea Kanboko bestak antolatzeke? Gogoeta hori eraman behar da. Ondotik zuk egin bezala zikinduak izateko baldin bada. Zergatik haiengan gelditzen da dirua atzematea? »*

Auzapez jaunak adierazten du ez dela ados, eta gehien bat gai ordenean den gaia saihesteko erranak zabaltzen esentseatzeko. Gazteek zinezko zailtasunak izan balituzte, eta aipatu balituzte, herria, iraganean bezala, haien laguntzeko prest izanen zen. Urtez urte deklaratu izan dena begiratzea galdegiten du eta ezin zuen jakin zailtasunak bazirela N-1 urteko kontuak positiboak ziren puntutik. Espero du Pascale Lespaderen laguntzarekin ez dela gehiago aitzineko taldeekin ezagutu arazorik berriz gertatuko.

Hiriart-Urruty Andereak oroitarazten du besta batzuk ongi gertatu direla, eta errealitate bat da.

Auzapez jaunak ez du ukatzen baina oharrarazten du ezagutua ez den defizita bat ordaintzeko herriak 7 000 € ordaindu beharra errealitate bat dela ere.

Bardin Jaunak hitza hartzen du erraiteko ez direla animazioak hemen zalantzan ezarriak, arazoa diru mailakoa baizik ez da.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du 2015eko bilana helarazia izan denez.

Lespade Andereak erantzuten du Pasalekuko méchouia agertzen ez zen bilan hori ukan duela.

Aiçaguerre Andereak, Pasalekuko méchouiari dagokionez oharrarazten du komiteak, 2015ean ez dituela xapittoaren alokatzeko xahutzeak bere gain hartu beharko pertsona batzuk mobilizatu direlako komiteak ez dezan kargu hori bere gain hartzerik.

Lespade Andereak gehitzen du denen zeregina dela haien laguntzea gastu gutiago izan dadin. Xapittoa prestatu dieten pertsonak eskertzen eta zorientzen ditu.

Michelena Jauna harritzen da denek Pasalekuko méchouia aipatzen dutelako. « Hemen zikiro erraiten da eta ez méchoui ».

Auzapez jaunak arrunt arrazoi duela erraiten dio.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

13 –Txakurrak HBHS: estatutuen aldatzea.

Herriko kontseilari arduraduna den Roger Barbier Jaunak, haren kontseiluko kideak informatzen ditu 2015eko azaroaren 23ko delibero baten bitartez, Txakurrak Herri arteko Sindikatuko batzordeak onartu duela Txakurrak SIVU/HBHS-en estatutuak aldatzea Haltsuko herria atera ondoren. Sindikatu horren kide den herri bakoitzak iritzi bat eman behar du, hiru hilabateko epean, estatutuen aldaketari buruz.

Ondoko herriek dute Sindikatu hau osatzen: Angelu, Bassussarri, Baiona, Biarritz, Beskoitze, Kanbo, Lahonce, Mugerre, Hiriburu, Urketa, Ahurti, Milafranga, Hazparne, Itsasu, Bidarte, Bokale, Donapaleu eta Larressoro.

Bacardatz Jaunak galdegiten du herri horien ateratzeko arrazoinak ezagunak direnez, eta nola egiten duten herri horiek Sindikatutik atera direnetik. Bata bestearen ondoko ateratze horiek diru mailako eragin bat izanen dute kide diren herriengan.

Barbier Jaunak erantzuten dio ez dela herriaren afera eta oharrarazten du herriak txakurdegi bat sortu behar balu, kostu garrantzitsu bat eragingo liokeela. Zehazten du sindikatuaren zeregina ondokoa dela:

- abere herratu eta abandonatuak (xakurrak eta gatuak) harrapatu eta berreskuratzea kide diren herrien eremuan, baserri guneko kodeko L211-27 artikuluan zehaztu abereak salbu, erran nahi baita gatu ez identifikatuak, jaberik gabe, taldean herriko leku publikoetan bizi direnak,
- herri arteko bahitegiaren kudeaketa,
- abere herratu eta abandonatuentzako harrera eta zaintza eraikinen kudeaketa.

Auzapez Jaunak gehitzen du zerbitzu horrek zenbat kostatzen duen herriari, eta, beste auzapezekin kostuari begiratu beharko ziola ordezkotzat aterabide bat atzemateko gisan. Zehazten du txakurtegi herrian ez ukaiteak aterabide bat eskaintzen zuela sindikatu horretan sartuz.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

SIVU Txakurrak SIVU/HBHS-en estatutuak aldatzea, Haltsuko herria atera ondoren, aho batez onartua da.

14 – Auzapezaren erabakien jakinaraztea.

Lurralde kolektibitateetako kodeko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikulua eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren deliberoaren ondorioz, ondokoa jakinarazten da

1º) hiriaren erosteko lehentasun eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2015eko abenduaren 11tik 2016ko urtarrilaren 22ra:

- Lur eremu: 1
- Etxe: 3
- Apartamendu: 0

2º) hilerrian kontzesioen emate eta berriz hartzei buruzko erabakiak 2015eko abenduaren 10etik 2016ko urtarrilaren 22ra:

- Kontzesio erosketak 15 urterako: 0
- Kontzesio erosketak 30 urterako (+ hilobiak): 0

- Kontzesio erosketa 30 urterako (+ hilobiak): 0
- Kontzesio berritzea 15 urterako: 0
- Kontzesio berritzea 30 urterako (hilobiak): 0
- Dohaineko lur zatien berriz hartzea: 0

15 – Orotariko gaiak.

Auzapez Jaunak jakinarazten du Kultura eta Komunikazio Ministroak Jondoni Laurendi eliza osoa Munumentu historiko gisa sailkatu duela.

Bacardatz Jaunak galdegiten du Camp de César bidexkan burutu obrak eskuratuak izan direnez, obrek iraun duten denboran, bide seinale batzuk plantan ezarriak izan baitziren. Hauek kenduak izan dira eta ez du orain deusek adierazten obrak badirela, isurbideak altxatuak izan direla. Gauaz, lanjerosa da, eta istripu bat gertatuko balitz, nork du ardura?

Auzapez Jaunak zerbitzuetako zuzendari nagusiari ingeniaria etorraraztea galdeginen dio seinale batzuk plantan ezarriak izn daitezen ahal bezain fite bidea obretan dela erakusteko.

Bacardatz Jaunak, fakturei dagokienez, adierazten du Devèze Jaunak obralaria eta enpresarekin bildu dela arratsalde honetan burutu obrak aipatzeko. Fakturak berriz aztertuak izanen dira. Biztanleak eta herriko zerbitzuen arteko eskuratze bat aurreikusia ote da, herriak baitie faktura biztanleei helarazten eta ez enpresak edo ikerketa bulegoak. Zertan garen galdegiten du, ordaintzeko epea apirilaren 1erako gelditua delako. Zenbatekaok zalantzan jartzeko gurtunak eskuratu ditu herriko etxeak, erantzunak eginak izan direa?

Devèze Jaunak erantzuten dio ez dakiela zer gertatuko den neurtu metroen zenbateko zehatzaz. Biztanleak egina izan denaren kontra altxatzen dira. Hala ere, Herriko kontseiluak du HEA obralaria hautatu, herriak orain arte arregura berezirik gertatu gabe azken urteetan berarekin lan egiten duelako. Molde berean, ECRD enpresa ere hautatu du Herriko kontseiluak obra hauek burutzeko. Egia da Herriko kontseiluak erebaki duela saneamendu kolektibo horren lotura horien kostuaren zati bat biztanleei ordainaraztea, hamar bat biztanlek kolektiboa ez zen saneamendu bat baizik ez zutelarik. Teknikoki kolektibitateak ez du beraz batere esku hartu xantier horretan, eremu publikoan kokatu loturen zatia hunkitzen duen ERCD-k bakarrik kalkulatu diru mailako oihartzuna burutzen baizik ez du. Bacardatz Jaunarekin herriko etxean bilkura bat egin ondoren, Devèze Jaunak ERCD enpresari behin eta berriz aipatu zion eginak izan ziren dokumentuak, eta aurrekontu gisa erabiliak zirenak, behin betirako faktura zehatza osa dezaten neurtu metro eta bolumen zehatzen arabera. Berresten du jadanik proposatu zuela, aitzineko herriko kontseilu baten kariatara, horrelako asmoa agertzen zuten biztanleak errezebitzea eta, beraz, banaka haien errezebitzeko prest dela fakturak HEA, ECRD eta hiriko ingeniariak agiazatu ondoren. Bestalde ere gehitzen du, ahal bezain zintzo izaiteko, HEA, URA sindikatua eta beste herri elkargo batzuegana jo duela jakiteko gai honetan nola zebilen. Gertatzen da PFAC/SKAF-az bestalde, batzuek faktura finkoak egiten dituztela 2 000 € kontatuz lotura bakoitz. Oharrarazten du beraz Kanbo herriak zuzentasun kezka batekin fakturazio erreala nahi izan duela. Zer nahi izanik ere, egiaztatze hauen itzulera bat ukan orduko, faltarik gabe biztanleei zuzenduko zaie.

Bacardatz Jaunak seinalatzen du, eskuratu gutunen arabera ez duela biztanle batek ere obra hauen ordaintzeko aurkakotasunik adierazi, baina bakarrik zor dutena ordaindu nahi dutela. Biztanle batek obren eskuratzea herriko zerbitzuekin, HEA-rekin eta enpresarekin egin du. Makurrak egiaztatuak izan dira, neholako ekintzarik ez da abian ezarria izan. Badu hiru aste gunean bereko eskuratzea egina izan dela, eta ez da batere aldaketarik fakturazioan. Eskuratze ofiziala gunean egina izanen da eta ez herriko etxean, planoetan nahi duguna erranarazten ahal baitugu, baina lubakiak irekitzean sakonerak ongi ikusiko ditugu eta kalkulua egineraza izanen da. 18 m³ lur lubaki baterako fakturatu dela ikustean, ezinezkoa da.

Devèze Jaunak berriz ere adierazten du galdegin duela neurtu metro zehatzak biztanleei fakturatuak izan dakizkien. Errepikatzen du herriak ez duela inolako interesik dossier honetan, eta ez duela sekulan dirurik irabazi burutu saneamendu obretatik. Herriak zenbateko finkorik ez fakturatzeak, batzuek errazagoa delako egiten duten moduan, ongi frogatzen du hiria zorrotasun eta zuzentasun gehiago bilatzen entseatu dela.

Auzapez Jaunak seinalatzen du Bacardatz Jaunaren bigarren oharrak ongi agerian uzten dituela txosten bukaezinak, eta ez duela deus gehiagorik ekartzen lehen galderari dagokionez. Erantzuna izan da ez zela behin betikoa, neurtu metroak egiaztatuko zituztela obralariak, operadoreak eta herriko zerbitzu teknikoek. Akatsak baldin badira, zuzenduak izanen dira.

Bacardatz Jaunak erraiten du duela hiru hilabete, Devèze Jaunak aitzinkontua eman diolarik, jadanik erran ziola kantitateak zentzugabeak iruditu zitzaizkiola. Badu hiru hilabete biztanleak plenitzen direla, eta ez da deus eginik izan. Ordainketa apirilaren 1eko egina izan behar da.

Devèze Jaunak adierazten du egiaztatzeak apirilaren 1a aitzin eginak izanen direla.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du obrak osoki ordainduak izan direla. Makurrak baldin badira, espero du faktura zuzendu bat egin izanen dela.

Devèze Jaunak gehitzen du bistan dena, makurrak agertzen balira, egin dituztenek zuzendu beharko lituzketela, eta hiriak orduan kolektibitateak herritarrei zuzendu fakturak erregularizatzea galdeginen diela.

Michelena Jaunak, St Joseph parkea eta Fleuristes karrikaren arteko pasaia, izenik ez duena eta beraz atzeman beharko litzaioke, hartzen duten biztanle batzuen izenean leku hori argitua izan dadin segurtasunagatik. Bestalde, eskaera hau jadanik hainbat aldiz egin izan da baina ez baitzaio segidarik eman, gau honetan berritzen du.

Auzapez Jaunak erantzuten dio eskaera hau jadanik egin izan zela baina ez zela lehentasun bat. Azken hau oinezkoen bideei emana izan zitzaion.

Auzapez Jaunak seinalatzen du Finantza batzordea heldu den otsailaren 24an bilduko dela 18:00etan, heldu den otsailaren 29ko herriko kontseiluko saioan, 20:00etan aurkeztuak izanen diren 2015eko kontu administratiboak aztertzeko. Hastapeneko aurrekontuak martxoaren 21ean, 20:00etan onartuak izan daitezke.

Saioa 23:30etan altxatua da.